



Urt Zubiaurre eta Eneko Aizpuru, atzo Donostian.

Urteetan zehar sariak irabazi ostean, Urt Zubiaurrek liburu batean bildu ditu bere ipuinak

Eneko Aizpuruak Donostiako kultur hiriburutzarekin lotu du bere nobela beltz berria, Ereinekin publikatzen duen hirugarrena

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Erein argitaletxeak bi beritasun aurkeztu ditu: Urt Zubiaurre Otamendiren 'Izenik gabeko lurak' eta Eneko Aizpuruaren 'Leher-tu da festa'. Bata ipuin-bilduma da, bestea nobela beltza, Ereinek horretarako daukan 'Uzta gorria' bildumaren barruan azaldu delarik.

Urt Zubiaurre Otamendik heme-

zortzi ipuin ekarri ditu 'Izenik gabeko lurak' liburuan. Eta izenburua, berriz, Xabier Leteren esaldi baten zatia da: «Izenik gabeko lurretatik ez zera inoiz itzuliko», alegia.

Idazle honen lehen liburua da, baina eskarmentuduna da eta zenbait ipuin sari irabazitakoa, hala nola Pedro de Atarrabia, Bordari eta Lasarte-Oriakoa; eta Gabriel Aresti sariketan akzesita lortutakoa da baita ere. Duela hamar urte idatzitako ipuinik bada bilduman, baina gehienak orain hiruzpalau urtekoak dira. Bai Iñaki Aldekoa editorea bai Urt Zubiaurre bat etorri dira: paisaiek eta atmosferak garrantzi handia daukate kontakizunotan. Eta askotan basoa ageri da.



IZENIK GABEKO LURRAK
URT ZUBIAURRE
Generoa: Nobela.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 173.
Prezioa: 15 euro.



LEHER-TU DA FESTA
ENOKO AIZPURUA
Generoa: Nobela beltza.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 213.
Prezioa: 17 euro.

Era askotako gaiak ukitu ditu Zubiaurrek eta oso garai diferentetan kokatu istorioak. «Baina, azkenean, liburuan batu egin dira ipuinak. Zergatik? Nik ditudan tresnak erabili ditudalako», adierazi du Andoingo idazleak.

«Ipuinak idazteko garaian estrategia asko erabili ditut. Oroitzapenak, lagunekin izandako elkarrizketak, inork kontatu dizkidan pasadizoak; baina, batez ere, historiako irakurketak, literatura fantastikoa, mendi-zaletasuna eta filosofoen bizitzak izan dira baliabide nagusiak», adierazi du.

Zallena, berarentzat, ipuinaren bukaera asmatzea izaten omen da. Normalean bukaera irekiak idatzi ohi ditu. «Liburuaren azalean ere basoa ageri da. Metafora bat erabiltza, nahiago dut irakurlela basoaren erdian utzi. Ez diot esango nondik irten, nik ere ez baitakit zein den bueltatzeko edo ateratzeko bidea. Erantzun garbiko bukaerak ez zaizkit gustatzen».

Europaren garrantzia

'Leher-tu da festa' 2015ean eta Donostian dago kokatua. Hain zuzen ere, hirian Europako kultur hiriburutzako ekitaldiak hasteko denbora gutxi falta dela. Hau da abiapuntua: Mikel Egileor 'freelance' kazetari ohi eta 'outsider' totala ikertzaile dabil orain. Hiriko gazte baten desagerpena ikertzeko enkargua eman diote. Egileorrez gain, ordea, Ertzaintza ere atzetik dabilkio gazteari, Europako kultur gertakari handia hondatu eta galarazi nahi duelakoan. Atentatuen psikosia hiriko bazter guztietan hedatu da. Agintariak segurtasun neurriak indartu dituzte, baina inork ez daki zer gertatuko den hurrena.

Lazkaoko idazle honek 'Uzta gorria' bildumarako idazten duen hirugarren eleberria da. 2011n 'Errauts' plazaratu zuen, eta handik ni urtera 'Herensuge gorriaren urtea'. Ikaske-taz Zuzenbideko lizentziatua da, eta ogibidez itzultzailea.

«Liburu honen azken helburua Europari buruzko gogoeta piztea da. Ari gara kultur hiriburutza ospatzen, baina inon ez dut ikusi Europari buruzko eztabaida sakonik; eta hori, Europa okerren dagoen unea, brexit-a eta etorkinen arazoa direla-eta, azaldu du idazleak.

Alicia Amatriain debuta con la Compañía Nacional de Danza en Granada

:: IRATXE DE ARANTZIBIA

SAN SEBASTIÁN. Alicia Amatriain (Donostia, 1980) debuta el próximo lunes como invitada de la Compañía Nacional de Danza (CND), en la Gala homenaje a Maya Plisetskaya, que la formación dirigida por José Carlos Martínez presenta en el Teatro del Generalife, dentro del marco de la 65 edición del Festival Internacional de Música y Danza de Granada. «Estar invitada por la Compañía Nacional de Danza es un sueño hecho realidad. Para mí, es muy emocionante y una de las cosas más geniales que me ha ocurrido desde hace mucho tiempo, porque todo el mundo sabe que llevo mucho sin poder bailar en España», confiesa la primera bailarina guipuzcoana.

Para esta ocasión, Amatriain se ha decantado por el paso a dos de 'Romeo y Julieta', con coreografía de John Cranko y que interpretará junto a Mikhail Kaniskin, y por el solo 'Allure' del emergente creador argentino Demis Volpi.

Satisfecha con la invitación de José Carlos Martínez a la CND, confiesa que le encantaría mantener una colaboración más permanente. «Para mí sería muy importante poder colaborar más asiduamente con la CND, porque me daría la oportunidad de ir a casa y de trabajar con José Carlos».

Consciente del revuelo levantado tras unas declaraciones a este diario después de recibir el Premio Benois de la Danse en el Bolshói de Moscú, confirma haber mantenido una conversación telefónica con el alcalde Eneko Goia, quien le reconoció que estaban en deuda con ella, pero, desde entonces, «nada de nada» y lamenta que «tiene delito bailar antes en Granada que en San Sebastián».

B CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

DIY TAILERRA

Upcycling

Tytti Thusberg
Jantzi bat sortzea
birziklatutako materialekin
Supra-birziklatzearen teknikak

Ekaina 18/19

10:00-14:00/15:30-18:30

Plaza mugatuak. Beharrezkoa da izena matea

didaktika@crislobalbalenciagamuseoa.com

TALLER DIY

Upcycling

Tytti Thusberg
Creación de una prenda
a base de materiales reciclados
Técnicas para el supra-reciclaje

18/19 Junio

10:00-14:00/15:30-18:30

Plazas limitadas. Inscripción necesaria

T. 943 008 840

